

BORONDATEZKO PRAKTIKAK / PRÁCTICAS VOLUNTARIAS

Agiri honen helburua da **Farmazia Fakultatean borondatezko praktikak** (curriculumetik kanpokoak) **kudeatzeko ezarri den prozeduraren** berri ematea.

Prozedura horren oinarrian daude, batetik, UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudia (EHAA, 2019-8-6), eta, bestetik, borondatezko praktiken inguruan Fakultatean hartu izan diren erabakiak:

- › Ikasleek gauzatzen eta Unibertsitateak gainbegiratzen dituen prestakuntza-jarduerak dira kanpoko praktika akademikoak, eta ikasleei prestakuntza akademikoan jaso dituzten ezagutzak garatzeko eta osatzeko bidean laguntzea da haien helburua, jarduera profesionalerako prestatzen, lan-merkatuan egokitzen eta ekimenerako gaitasuna sustatzen lagunduko dieten gaitasunez ahalik eta errazkien jabe daitezen.
 - › Unibertsitatean bertan edo erakunde laguntzaileen egoitzetan, hala nola nazio edo nazioarte mailako enpresa, instituzio eta erakunde publiko eta pribatuetan, egin ahal izango dira kanpoko praktika akademikoak.
 - › Erakunde laguntzaileko **instruktoarak amaierako txostena** prestatuko du, behin praktikak bukatuta. Posible bada, txosten hau GAUR-PRAKTIGES plataformaren bidez beteko da.
 - › **Ikasleak amaierako txostena** prestatuko du, behin praktikak bukatuta, GAUR-PRAKTIGES plataformaren bidez.
 - › Unibertsitateko **tutoreak** praktikak ebaluatuko ditu, instruktorearen txostena eta ikaslearen txostena oinarritzat hartuta. Horretarako, tutoreak **amaierako ebaluazio-txostena** beteko du GAUR-PRAKTIGES plataformaren bidez.
 - › Araudiaren 34. artikuluan adierazita dago Curriculumetik kanpoko praktikak egin ahal izateko, ikasleak **titulua eskuratzeko beharrezkoak diren kredituen erdiak gaindituta eduki beharko dituela gutxienez, eskaera egiten duen unean.**
 - › Praktikak egin nahi dituen ikasleak honako agiri hauek **aurkeztu** beharko ditu behar den moduan beteta **Fakultateko Idazkaritzan**:
 - Eskaera-orrria
 - Erakundean onartua izateko baimen-eskaera
 - III. eranskina (praktikak UPV/EHU barnean egingo direnean soilik)
- El presente documento tiene como finalidad dar cuenta del **procedimiento establecido en la Facultad de Farmacia para la gestión de las prácticas voluntarias** (extracurriculares).
- Este procedimiento está basado en la Normativa Reguladora de las Prácticas Académicas Externas del Alumnado de la UPV/EHU (BOPV, 6-8-2019) y en los distintos acuerdos adoptados por la Facultad en relación con las prácticas voluntarias:
- › Las prácticas académicas externas constituyen una actividad de naturaleza formativa realizada por el alumnado y supervisada por la Universidad, cuyo objetivo es permitir a los mismos aplicar y complementar los conocimientos adquiridos en su formación académica, favoreciendo la adquisición de competencias que les preparen para el ejercicio de actividades profesionales, faciliten su incorporación al mercado laboral y fomenten su capacidad de emprendimiento.
 - › Podrán realizarse en la propia Universidad o en entidades colaboradoras, tales como empresas, instituciones y entidades públicas y privadas en el ámbito nacional e internacional.
 - › El **instructor o instructora** de la entidad colaboradora realizará un **informe final** a la conclusión de las prácticas. Siempre que sea posible, este informe será cumplimentado en la plataforma GAUR-PRAKTIGES.
 - › El **alumno o alumna** elaborará un **informe final** a la conclusión de las prácticas a través de la plataforma GAUR-PRAKTIGES.
 - › El **tutor o tutora** de la Universidad evaluará las prácticas desarrolladas, sobre la base de los informes del instructor y del alumno. A tal efecto, el tutor cumplimentará el correspondiente **informe final** de evaluación en la plataforma GAUR-PRAKTIGES.
 - › La Normativa indica en su artículo 34 que para realizar prácticas externas extracurriculares el alumno o alumna deberá **haber superado como mínimo la mitad de los créditos necesarios para obtener su titulación** en el momento en el que presente la solicitud.
 - › El alumnado que desee realizar prácticas deberá **presentar** en la **Secretaría de la Facultad** los siguientes documentos debidamente cumplimentados:
 - Instancia
 - Solicitud de autorización de admisión en la entidad
 - Anexo III (únicamente en el caso de que las prácticas se vayan a llevar a cabo dentro de la UPV/EHU)

- › Ikasleak honako **epe** hauetako batean eraman beharko ditu agiriak **Fakultateko Idazkaritzara**:
 - **Irailaren 1. hamabostaldia** (praktikak 1. lauhilekoan edo ikasturte osoan, urriaren 10etik aurrera)
 - **Otsailaren 1. hamabostaldia** (praktikak 2. lauhilekoan, martxoaren 10etik aurrera)
 - **Ekainaren 1. astea** (praktikak uztailean edota abuztuan; uztailaren 1etik aurrera. Praktika hauek bukatzeko azken eguna abuztuaren 31 izango da)
- › Eskerak aurkezteko epe bakoitza bukatutakoan, jasotakoak **20 eguneko** epean aztertu eta ebatziko dira. Halaber, eskaera onarturiko ikasleei irakasle tutore bana esleituko zaie.
- › Baimena eman eta gero, eta dagokion **lankidetzahitzarmena sinatu ondoren**, jarduerari ekin ahal izango dio ikasleak.
- › Borondatezko praktikak, oro har, **eskola-alditik kanpo** egin behar dira, eta salbuespen hauek hartuko dira aintzat:
 - UPV/EHUko Arabako Campuseko ikastegiren batean egindako praktikak.
 - Ikasturtearen lauhilekoren batean, egindako matrikularen ezaugarri direla eta, Fakultatean jarduera akademikorik ez duten ikasleak. Irakasgai errepikatu bat edukitzea nahikoa da dagokion lauhilekoan jarduera akademikoa edukitzeko.
 - Beste egoera berezi batzuk. Praktikei dagokien edozein izapide egiten hasi aurretik, baimena eskatu beharko da Dekanotzan.
- › Praktikak erabilgarriak gerta daitezten, praktika-aldiak **gutxienez bi astekoa eta 75 ordukoa** izan behar duela erabaki da; hortaz, ez da praktika-aldi laburragoko eskaerarik onartuko.
- › Praktiken gehieneko iraupenari dagokionez, Araudiaren 5.1.b artikuluan adierazita dago praktiken iraupenak ez duela gaindituko, ahal bada, ikasturtearen % 50.
- › Oro har, borondatezko praktikak **astelehenetik ostiralera** egingo dira. Asteburuetan egiteko arrazoi akademikoa justifikatua beharko da.
- › Ikasleak, ikasketak egiten ari den bitartean, behin baino gehiagotan eskatu ahal izango du praktikak egitea.
- › El alumno o alumna deberá presentar la documentación en la **Secretaría de la Facultad** en alguno de los **períodos** siguientes:
 - **1ª quincena septiembre** (prácticas durante el 1º cuatrimestre o curso completo, a partir del 10 de octubre)
 - **1ª quincena febrero** (prácticas durante el 2º cuatrimestre, a partir del 10 de marzo)
 - **1ª semana junio** (prácticas durante julio y/o agosto; a partir del 1 de julio. La fecha límite para finalizar dichas prácticas será el 31 de agosto)
- › Una vez finalizado cada uno de los plazos de presentación de solicitudes, estas se estudiarán y resolverán en un plazo de **20 días**. Asimismo, se asignará un profesor tutor o una profesora tutora para cada estudiante cuya solicitud haya sido aprobada.
- › Una vez concedida la autorización, y **tras la firma del convenio de colaboración** correspondiente, el alumnado podrá iniciar la actividad.
- › Las prácticas se deberán llevar a cabo, con carácter general, **fuera del periodo lectivo**. Se considerarán las siguientes excepciones:
 - Prácticas realizadas en algún centro perteneciente al Campus de Araba de la UPV/EHU.
 - Alumnado que, debido a las características de su matrícula, no tenga actividad académica en la Facultad en alguno de los cuatrimestres del curso. Las asignaturas repetidas, al igual que las de primera matrícula, suponen actividad académica en su cuatrimestre correspondiente.
 - Otras situaciones especiales. Se deberá solicitar permiso en el Decanato antes de realizar cualquier trámite relativo a las prácticas.
- › Se considera que con el fin de que las prácticas puedan resultar de utilidad deben desarrollarse durante un periodo de **al menos dos semanas y al menos 75 horas**, por lo que no se admitirán solicitudes por periodos inferiores al mencionado.
- › Por lo que respecta a la duración máxima de las prácticas, la Normativa indica en su artículo 5.1.b que estas tendrán una duración preferentemente no superior al 50% del curso académico.
- › De forma general, las prácticas voluntarias se desarrollarán de **lunes a viernes** (salvo que exista un motivo académico debidamente justificado)
- › El alumno o alumna podrá presentar más de una solicitud de prácticas a lo largo de sus estudios.

- › **Ikasturte akademiko berean** ikasle bakoitzak **gehienez 2 borondatezko praktika** egin ahal izango ditu.
- › Praktikak egiteko tokia aukeratzean, ikasleak kontuan izan behar du **ezin izango dutela parte hartu instruktore moduan** ikaslearekin **laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna duten pertsonak**, ez eta adiskidetasun mina dutenek ere, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa, 23. artikuluan zehazten duenez.
- Halaber, ikasleak ezingo ditu praktikak farmaziabulego (edo ospitaleko farmazia-zerbitzu) batean egin, baldin titularra (edo zerbitzu-burua) eta ikaslea aurreko paragrafoan adierazitako egoeretako batek lotzen baditu.
- › UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen gaineko Araudiak, bere 10. Artikuluan (Praktiketan ari diren ikasleen eskubideak eta betebeharrak) dioen bezala: **"Betebeharrak konplitzen ez badituzte edo praktika uzten badute, zigortu eta praktika berrietarako baimena esleitzerakoan lehentasunerako aukerarik gabe gertatuko dira ikasleak."**
- › **ASEGURUAK**
- Mugikortasun edo antzeko programa baten bidez **atzerriko unibertsitateetatik UPV/EHURA datozen** eta kanpoko praktika akademikoak egiten dituzten ikasleek izenpetu behar dute praktikak egitean sor ditzaketen kalteak estaltzeko:
- **IBILI poliza** edo gutxienez horren estaldura bera duen poliza bat
 - eta **Erantzukizun Zibileko beste poliza bat**.
- › **AINTZATESPENAK**
- 2020/21 ikasturtean edo geroago egiten diren borondatezko praktikak hautazko kredituen bidez aitortu ahal izango dira. **Praktiketako 25 orduren truke ECTS kreditu bat emango da, eta gehienez 3 ECTS aitortuko dira (75 ordu).**
- › En un **mismo curso académico**, cada alumno o alumna sólo podrá realizar un **máximo de 2 prácticas voluntarias**.
- › A la hora de elegir el centro de prácticas, el alumnado deberá tener en cuenta que según establece el Artículo 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, se **abstendrán** de participar como **instructor o instructora** del estudiante las personas que tengan **parentesco de consanguinidad dentro del cuarto grado o de afinidad dentro del segundo o amistad íntima con el estudiante**.
- Asimismo, el estudiante no podrá realizar las prácticas en una oficina de farmacia cuyo titular (o en un servicio de farmacia hospitalaria cuyo jefe de servicio) se encuentre con respecto al estudiante en algunas de las situaciones descritas en el párrafo anterior.
- › Tal y como indica la Normativa Reguladora de las Prácticas Académicas Externas del Alumnado de la UPV/EHU en su Artículo 10 sobre Derechos y deberes del alumnado en prácticas: **"El incumplimiento de deberes o el abandono de la práctica por el alumnado supondrá una penalización en la priorización de adjudicación a la hora de solicitar nuevas prácticas."**
- › **SEGUROS**
- El alumnado **procedente de universidades extranjeras** que venga a la UPV/EHU en un programa de movilidad o similar y realice prácticas académicas externas, para cubrir los daños que el alumnado pueda ocasionar por la realización de las prácticas, deberá:
- tener suscrita la **póliza IBILI**, o una póliza que tenga una cobertura mínima similar a ella
 - y otra de **Responsabilidad Civil**
- › **RECONOCIMIENTOS**
- Las prácticas voluntarias que se realicen en el curso 2020/21 o posteriores podrán ser reconocidas por créditos optativos. **Cada 25 h de prácticas se podrán reconocer por 1 ECTS, hasta un máximo total de 3 ECTS (75 h).**